

Tabakalera Dantzan: dantza bere ohiko testuinguru eszenikotik harago

- **Ion Munduate** da aurtengo edizioko sorkuntza-egonaldiko artista eta abuztuaren 11n "Hafuura" proiektua aurkeztuko du, Blanca Calvo eta Iñar Sastrekin elkarlanean.
- **Zikloa Paula Quintanaren "Atlas de Anatomía"** eta **Lorena Nogalen (2024ko Dantza Sari Nazionala) "PICASSa"** emanaldiek osotuko dute.
- **Sarrerak** salgai quincenamusical.eus webgunean eta **Kursaaleko zein Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan**.

Abuztuaren 11n, 13an eta 14an, Donostiako Musika Hamabostaldiak eta Tabakalerak, Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroak sustatutako **Tabakalera Dantzan** zikloak Tabakalerako hainbat espazio hartuko ditu bere zazpigarren edizioan. Olatz de Andrésen koordinaziopean, zikloak helburu ditu dantza garaikidearen alorrean sorkuntza sustatzea eta diziplina artistiko horren hedapena eta ikusgarritasuna lortzeko plataforma izatea. Koordinatzailearen hitzetan, "Urtez urte, Tabakalera Dantzan sendotuz doa, dantza garaikidearen eta ikerketa-dantzaren unibertso zabala hartzen duen espazio gisa. Bilaketa artistiko berezietan diharduten sortzaileen lanak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Zikloak dantzarako leku esanguratsua eraikitzen du Musika Hamabostaldiaren baitan, musikarekin, soinuarekin eta espazio arkitektonikoarekin duen harreman zuzena ardatz hartuta. Horrela, dantza bere ohiko testuinguru eszenikotik harago kokatzen du".

Ion Munduate da aurtengo Tabakalera Dantzan programaren barne Tabakalerak eta Musika Hamabostaldiak babestutako **sorkuntza-egonaldian** parte hartzen duen koreografoa. Egonaldi horrek ibilbide luzeko sortzaileei beren lana garatzeko espazioa eta gaur egun lantzen ari diren bilaketa artistikoak partekatzeko erabateko askatasuna eskaintzen dizkie. Zentroko instalazioetan hainbat jardunaldi egin ondoren, Blanca Calvorekin (Munduateren kolaboratzaile estua denbora luzez) eta Iñar Sastre pianistarekin batera, **abuztuaren 11n**, koreografoak **"Hafuura"** lana aurkeztuko du. Obrak ideia hau dauka abiapuntu: dena esentzietara itzul daitekeela. «Zerbait beste zerbait bihurtzen da mugimenduan dagoelako, une baten eta hurrengoaren arteko tartean kokatzen delako», idatzi du lonek.

Abuztuaren 13an, Paula Quintanak "Atlas de Anatomía" aurkeztuko du. Horretan, abesbatzaren ahotsak beste gorputz baten moduan aritzen dira, tradizioaren eta garaikidetasunaren arteko espazioa sortuta. Jakintzen polifonia eta nortasun poliedriko zein hibridoa ditu ardatz, izateko modu berriak zabalduta. Testuinguru horretan, flamenkoa, sasikoa, eta kultura latinoak, ezpurua, nortasun-mosaiko baten berezko osagai bihurtzen dira.

Abuztuaren 14an, 2024ko Dantza Sari Nazionala jaso zuen **Lorena Nogal** dantzari eta koreografoak **"PICASSa"** eskainiko du Tabakalerako hainbat espaziotan. Proposamenak Pablo Picassoren lanaren zatikatzeak zein haustura bisualak ditu inspirazio eta artistaren obraren hiru garai islatzen dituzten hiru espazioz osatutako ibilbidea proposatzen du. Gure errealitatea, bai maila fisikoan bai emozionalean, nola hautematen eta onartzen dugun azaltzen du eta estetika kubistarekin eta hark mundua ikuspegi askotatik ikusteko egiten duen gonbidapenarekin zuzenean konektatzen duen esperientzia murgiltzailea da. Bizipen artistikoa obraren eta publikoaren arteko topagunean bertan gauzatzen da. Ikusle izatea eta sorkuntza artistiko batek gudan pizten duena arakatzeko etengabeko esperientzia bilakatzen da.

Sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta **Kursaal Antzokiko zein Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke. Sarrerak geratzen badira, ekitaldi bakoitzaren aurretik Tabakaleran erosi ahal izango dira (eskudirutan bakarrik).

Hauek dira **Tabakalera Dantzan** zikloaren aurtengo edizioko **3 proposamenak**:

Ion Munduate, "Hafuura" - Abuztuak 11, 19:30 Patioa – 15 €

“Hafuura”, espiritua, airea, arnasa da oromotorren hitz horren itzulpena; adiera horiek guztiek esentzialera eramaten gaituzte. Proiektu hau denbora analogiko batean lan egiteko Saioa da, hareazko erloju baten barruan egongo bagina eta zapaltzen dugun gainazala aldatzen duen harea horren gainean mugituko bagina bezala. Ahotsaren, gorputzaren, mugimenduaren, hotsaren eta irudiaren bitartez, orainaldi berezi baten bidez eta arnasa komun batez, zerbaiten izaera eta harremanak mugatzen dituzten esentzien bitartez dena konpon daitekeela oinarri duen ideia lantzen du.

Fitxa artistikoa

Ion Munduate, Blanca Calvo ideia eta zuzendaritza

Ion Munduate koreografia

Iñar Sastre soinu-espazioa eta pianoa

Ion Munduate, Iñar Sastre interpreteak

Tamara García, Juan Lorient bideoa

Ana Buitrago laguntzaile artistikoa

Ion Munduatek (Donostia, 1969) *performance*, bideo-instalazioak eta argazkiak erabiltzen ditu. Bere prestakuntzaren oinarria mugimendua da (dantza, koreografia eta *zen* teknikak) eta Donostian, Madrilén zein Parisen ikasi zuen. Bere bakarkako azken proiektuen artean *Goldberg Versions* (2019-2020) eta *A través* (2024) Guggenheim Bilbao Museoko June Crespo-ren *Baskularra* erakusketan aurki daitezke. 2022-2023an, Azkuna Zentroko artista elkartua izan zen *Rosa de los vientos* proiektuarekin, Itziar Okariz, Laurence Russell, Hervé Diasnas eta Iñaki Martínez de Albenizekin batera. 2022an bakarkako erakusketa aurkeztu zuen Artiumen. Aurretik, 2008tik 2014ra bitartean, Blanca Calvorekin batera, Mugatxoan prestakuntza-, ikerketa- eta sorkuntza-proiektuaren zuzendari izan zen. Artelekun, Fundação Serralvesen eta LaLaboralen garatutako proiektu honek 2015ean Gure Arte saria jaso zuen.

Paula Quintana, "Atlas de anatomía" - Abuztuak 13, 19:30 – Patioa – 15 €

“**Atlas de anatomía**” emakume gorputz bat da non elkaturik bizi diren oinordetzan jasotako tradizioak eta ikasitako ereduak, organoekin eta fluidoekin batera. Gorputz hau uhartetarra eta kanariarra da, eta eragin afrolatinoak, andaluziar herentzia eta europar oraina ditu. Gorputz nahasia eta mestizoa da, bere forma guztietan, eta zalantza egiten du ustez ikasi duenaren eta ustez betetzen duen lekuari buruz ikasi duenaren aurrean, identitate askotariko eta konplexu horrekiko erantzukizun gisa, izateko eta lotzeko aukera berrien gose.

Fitxa artistikoa

Paula Quintana interpretazioa, koreografia eta zuzendaritza

Miguel Marín soinu-espazioa

Jorge Dutor jantziak

Miguel Ruz argiztapena eta zuzendaritza teknikoa

Proyecto eLe, Carlos Cansino, Ana Cinta Alonso, Riklia Sanchis, Rogelio Rodríguez ahotsak

Rebecka Skogh material grafikoak

Fernando López, Mari Paula, Javier Cuevas laguntza artistikoa

Jonás García soinu-teknikaria

Elvira Gimenez, Ángela de la Torre / Cultproject komunikazioa

Caterina Muñoz kudeaketa eta banaketa

Paula Quintanaren koreografiak hainbat hizkuntza zeharkatzen dituzte aurreiritzirik gabe, hala nola flamenkoa, dantza garaikidea eta antzerki fisikoa. Ibilbide artistiko oparoa garatu du koreografo, dantzari eta *performer* gisa. Artista egoiliarra izan da Graner Centre de Creació 2022an, Teatro de La Abadian 2021ean, Cité International des Arts-en Paris, Centre National de la Dansa 2019an eta Madrilgo Teatros del Canal antzokietan 2015etik 2019ra. 2021ean La Caixa Fundazioaren Art For Change programen hautaketan parte hartu zuen. 2023an, Blanca Palomak Eurovision jaialdian

egindako emanaldiaren koreografia eta zuzendaritza artistikoaz arduratu zen. 2024an Max Sarien galaren koreografia sortu zuen. *Atlas de anatomía* (2025) da bere azken sorkuntza.

Lorena Nogal, "PICASSa" - Abuztuak 14, 17:00/19:00 – Hainbat espazio (hasiera: Plaza) – 15 €

Picassoren haustura bisualetan inspiratuta, "PICASSa"k desafekzioa, iragankortasunaren arrastoa eta adierazpen-modu berrien bilaketa aztertzen ditu, museo-espazioaren testuingurutik ateratzeko eta eraldatzeko ariketa baten baitan. Kubismoarekin harreman estuan, piezak errealitatea hainbat ikuspegitatik birpentsatzeko gonbita egiten du, harreman berriak ezarriz gorputzaren, irudimenaren eta ikuslearen artean, antzerkiaren muga konbentzionaletatik kanpoko bidaia sortzaile batean.

Fitxa artistikoa

Lorena Nogal koreografia, interpretazioa, ideia eta zuzendaritza

Àngela Boix ekoizpena

Marina Rodríguez koreografia laguntzailea

Álvaro Esteban laguntza artistikoa

Mar García (Marlota) jantziak

Manuel Rodríguez, Rafael Heredia soinu diseinua

Lourdes Cabrera argazkiak

* Graner dantza eta arte bizien sorkuntza-zentroaren eta Picasso Museoaren koprodukzioa, Bartzelonako Kultura Institutuaren *Creación y Museos* programaren barruan (*Creación y Museos* Bartzelonako Sorkuntza Fabriken Sarearen laguntzarekin garatutako proiektua da).

Bartzelonako GREC Jaialdiaren eta Festival Escena Patrimonio jaialdiaren laguntzarekin.

Lorena Nogal (Bartzelona, 1984) LA VERONALeko talde artistikoaren funtsezko partaidea da, koreografo zein dantzari gisa. Marcos Moraurekin lankidetzan sortutako piezak nazioarteko dantza-konpainia ospetsuetara ere iritsi dira: The Royal Danish Ballet, Beijing Dance Theater, GöteborgsOperans Danskompani, National Dance Company Wales, Compañía Nacional de Danza, Scapino Ballet, Carte Blanche, Norrdans, Skænes Dansteater, Ballet Zürich, Ballet Nacional de España edo Nederlands Dans Company. 2018an, beste dantzari batzuekin batera, HOTEL Col·lectiu Escènic proiektua abiarazi zuen. 2024an Interpretazioko Dantzaren Sari Nazionala eta emakumezko interprete onenaren Talía Saria jaso zituen.